

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 18ko 130/2025 Foru Dekretuan atzemandako akatsak zuzentzeko dena. Foru Dekretu horren bidez, 2026an Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egiten diren kirol, kultura edo euskararen normalkuntzako proiektu eta jarduerak finantzatzeko foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia, de corrección de errores detectados en el Decreto Foral 130/2025, de 18 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la financiación de proyectos y actividades deportivas, culturales o de normalización del euskera, que desarrollándose en 2026 fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, den visibilidad internacional a este.

2025eko abenduaren 31ko 249 zenbakiko BAOn argitaratu zen 130/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 18koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, 2026an Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo garatzen diren kirol, kultura edo euskararen normalkuntzako proiektu eta jarduerak finantzatzeko foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen.

En el BOB nº 249 de 31 de diciembre de 2025 se publicó el DECRETO FORAL 130/2025, de 18 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la financiación de proyectos y actividades deportivas, culturales o de normalización del euskera, que desarrollándose en 2026 fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, den visibilidad internacional a este.

Dekretu horren 10. oinarriaren 4. puntuko bigarren paragrafoan itzulpen-akats bat antzeman da euskarazko bertsioan, beraz, ez dator bat gaztelaniaz adierazitakoarekin.

En el segundo párrafo de la base 10 punto 4 de ese Decreto se ha detectado un error de traducción en la versión de euskera, de modo que no se corresponde con lo indicado en castellano.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.2.a artikuluan (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko Akordioaren (Araugintza Teknikaren Jarraibideak onartzen dituen) 88. apartatuko hirugarren kasuan adierazitakoarekin batera, bidezkoa da akats hori zuzentzea.

Así, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, junto con lo indicado en el artículo 26.2.a del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, y el tercer supuesto del apartado 88 del Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, de 4 de julio de 2017, por el que se aprueban las Directrices de Técnica Normativa de la Diputación Foral de Bizkaia, procede corregir dicho error.





Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio bidalitako testua onartzea, 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren,

En todo caso, corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la aprobación del texto remitido, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 de la Norma Foral 3/1987.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

#### XEDATZEN DA:

#### SE DISPONE:

Lehenengo artikulua. *Zuzentzea Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 18ko 130/2025 Foru Dekretuan atzemandako akatsak. Foru Dekretu horren bidez, 2026an Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egiten diren kirol, kultura edo euskararen normalkuntzako proiektu eta jarduerak finantzatzeko foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.*

Artículo primero. *Corrección de errores del Decreto Foral 130/2025, de 18 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la financiación de proyectos y actividades deportivas, culturales o de normalización del euskera, que desarrollándose en 2026 fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, den visibilidad internacional a este.*

Euskarazko bertsioan antzemandako hurrengo itzulpen-akatsa zuzendu da, gaztelaniazko bertsioarekin bat etor dadin.

Se corrige el siguiente error de traducción detectado en la versión en euskera para que coincida con la versión en castellano.

10.4 oinarrian, bigarren paragrafoan, honako hau dioenean:

En la Base 10.4 segundo párrafo donde dice:

*Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 80ra artekoa izango da.*

*Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 80ra artekoa izango da.*

Honela esan behar du:

Debe decir:

*Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 80ra artekoa izango da, eta ez da inola ere 50.000 €-tik gorakoa izango, ezta onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa ere.*

*Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 80ra artekoa izango da, eta ez da inola ere 50.000 €-tik gorakoa izango, ezta onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa ere.*

Bigarren artikulua. *Argitalpena.*

Artículo segundo. *Publicación.*

Dekretuaren testu osoa argitaratzea xedatzen da, zuzendu ondoren.

Se dispone la publicación del texto íntegro del Decreto, tras su corrección.

#### Azken xedapenak

#### Disposiciones finales

Xedapen iragankor bakarra. *Jasotako dirulaguntza eskaerei aplikatzea.*

Disposición Transitoria Única. *Aplicación a las solicitudes de subvención recibidas.*





Dekretu honetan jasotako aldaketak zuzenketa-dekretu hau indarrean jarri aurretik jasotako dirulaguntzen eskaerei ere aplikatuko zaizkie.

Las modificaciones contenidas en este decreto serán de aplicación también a las solicitudes de subvención recibidas con anterioridad a la fecha de entrada en vigor del presente decreto de corrección.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Disposición final única. *Entrada en vigor.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

